



# Manifestazio eta istiluek ez dute etenik Venezuelako gatazka mediatizatuan

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Chavismoa eta oposizioa protesta egitera irten dira Venezuelako kaleetara eta hiru hildako eta hamarnaka zauritu eta atxilotu izan dira. Oposizioak Nicolas Maduro presidenteak kargua uztea eskatu du eta Gobernuaren aldekoek, aldiz, hura defendatu eta estatu kolpe saiakera salatu dute. Madurok elkarriketarako deia egin du eta Henrique Capriles manifestazioekin jarraitzekoa.

Apirilaren 19an independentziaren aldeko borrokaren hasiera ospatzen dute urtero Venezuelan eta aurten kaleira irteteko erabili dute jai eguna chavismoak zein oposizioak. Herrialde osoan egin dituzte martxak eta Caracasen istiluak izan dira oposizioako manifestariak eraikin ofizialen zonaldera iristen saiatu direnean.

Hiru hildako egon dira: 24 urteko emakume bat, 19 urteko gizon bat eta Polizia Nazional Bolivartarreko militar bat. Gertatutakoaren inguruko bertsioak ugariak dira. Oposizioaren esanetan, hildako gazteak oposizioako kideak ziren eta manifestazio bitarteko

istiluetan hil dituzte, tiroz. *El Universal* egunkariak, berriz, jakinarazi du hildako emakumearen senideek esan dutela hura ez zegoela manifestazioan. Horrez gain, gizonezko biktimaren anaiak esan du hura ez zela oposizioakoa.

## Elkarriketarako deia eta manifestazio gehiago

Bien bitartean, Nicolás Madurok elkarriketarako deia luzatu die oposizioaren bozeramaileei eta "indarkeriarekin eta kolpismoarekin amaitzeko" eskatu die. Tareck El Aissami Gobernuko presidenteordeak esan du oposizioako buruek planifikatu eta finantzatu dituztela kaleko istiluak, nazioarteko iritzian eragiteko eta esku-hartze bat justifikatzeko. Henrique Capriles oposizioako buruak, ordea, manifestazio gehiago deitu ditu.

Venezuelako Gobernuaren aldekoen eta aurkakoen arteko gerra mediatikoa gero eta gogorragoa da. Pascual Serrano kazetariak salatu du nazioarteko medioek informazioa manipulatzeko dutela, Nicolás Maduroren Gobernu "manifestari baketsuen errepresio-gile" bezala erakusteko eta "istiluen goratzea" egiteko.

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Asko dago aldarrikatzeko



Juan Mari Arregi

Egun batzuk barru mundu osoan ospatuko da Maiatzaren Lehena. 131 aldiz egin da honez gero, eta urterik urte sindikatuek kalera irteteko eskatzen dute. 1886an Iparramerikan ugazabek inposatutako lanegun amaigabeen aurrean, zortzi orduak defendatzeagatik hil zituzten langileen oroimenez egin ohi da. Baina ez da gogoratzeko data soil bat, baita aldarrikatzeko ere. Zenbaitek klase borroka ukatu nahi duten garaioetan, bizi-bizirik baitago. Erasoaldi kapitalista gero eta muturrekoagoa da, eta horregatik behar da aldarrikatu, mundu osoan bezala hemen eta orain.

Langabeziak hor segitzen du eskandaluzko zifrekin (%12 inguru), gazte langabetuak %50 dira eta milaka pertsona daude paroan luzaroan; prestazio sozialak gutxiegi dira ordea. Horri gehitu behar zaio beste milaka lagunek jasaten duten lan prekarietatea. Lotsagarria da, bestalde, eroste-ko ahalmenaren galera, soldatak oso baxuak baitira: Hego Euskal Herriko langileek azken bost urteetan 1.582 milioi euro galdu dituzte. Soldaten araberako diskriminazioa basatia da: emakumeek gizonen baino laurdena eta herena artean gutxiago jasotzen dute, eta gazteek berriz, 45 eta 52 urte artekoen erdia ere ez. Jubilatuek pentsioak praktikan izoztuta dituzte, egunetik egunera pobregokoak dira. Eta bitartean, aberatsak gero eta aberatsago dira, gobernuak kontrolatzen dituzten politika sozio-ekonomiko eta fiskalen onuradun nagusiak izaki.

Egoera aldatzeko bestelako politikak behar dira, eta Euskal Herriaren burujabetza politiko, ekonomiko eta soziala ere behar dugu, herri langilea izan dadin aldaketa sozialari probetxu aterako diona. Hori lortzeko, ordea, ezinbestekoa izango da sindikalgintza abertzalearen ekintza batasuna.